

Lo hartu ezinean ibili nintzen gau osoan zehar, bueltak eta bueltak ematen urduritasuna zela eta. Ohean etzanda, leihotik zehar dir-dir egiten zuten izarrak ikusten nituen, bakoitza zein zen asmatu nahian. Gaueko argi disdiratsu bakoitzari buruan neukan pentsamendu bat eskeintzen nion, hark geroxeago erantzuna bilatzen lagun balidake bezala. Momentu hartan zenbat pertsona gehiago arituko lirateke, bere zalantzak unibertsoa bidaltzen? Zenbatek otoitz egiten? Maiz, aita hil aurretik, etxe aurreko zelaian etzan egiten ginen, ilargia bere modu ezberdinetan ikusteko. Nire lagunak baino zuriago nintzenez, aitaxok beti ilargiaren alaba nintzela esaten zidan eta nik sinetsi egiten nion. Ideia hura gustuko nuen, askatasun kutsua somatzen niolako. Denbora luzez, amaigabeko maindire beltz hartan bidaiatu ondoren, nire burutazioek garrantzi handirik ez zutela somatu nuen, beraz, besteenak ez oztopatzeko, begiak itxi eta dan-danak bereganatu nituen.

Txorien txorrotzio gozoak esnatu ninduen. Goiz hartan, ni izango nintzen munduko zentrua. Azkenean nere ametsetako gizonarekin bizi osorako elkartzera nindoan, jendeak opariak eta agur adeitsuak emango zizkidan bitartean. Ez nintzen gai izango barnean sentitzen nituen hainbeste sentimendu hitzez adierazteko, ezta sabeleko tximeletak boltsatxu baten sartzeko hegan egin ez zezaten; baina nire irribarreak, zirrara horiek guztiak ezagutaraziko zituen. Txikia izanda, zenbat biderrez esnaturik amets egin izan nuen egun horrekin. Ez nuen zaldi gaineko printzerik nahi, ezta ni askatzeko dragoia hil behar zuen heroirik; ez nuen horren beharrik. Nahikoa nuen nik aukeratutako mutil adeitsu batekin, bide berri bati ekitearekin.

Bapatean, astiro-astiro nere begitik erortzen zihoan malkor gazi batek errealitatera ekarri ninduen berriz ere. Tristurak, itsasoko olatu bortitz eta erraldoi batek jotako itsasontzi baten antzera, urperatu ninduen.

Amestutako guzti hori, egia izan zitekeen, hura gertatzen zen munduko mapatik hamabost zentimetro beherago jaio izan ez banintz.

Bola hartan txikikeri bat zirudien distantzia horrek, hatzamar erdia baino txikiagoko urruntasun horrek, nere bizitza osoa baldintzatzen zuen; nirea eta inguruko emakume ororena ere.

Udako egun eguzkitsu eta berotsu hartan hamalau urte egiten nituen eta horrek haurtzarotik betirako aldentzen ninduen. Herriskako ohitura zaharrak betez, nere amaren altzoa utzi beharko nuen, nire etxe berria izango zen etxola batera joateko.

Amak, une berezi horretarako arropa eta bestelako apaindurak jartzen laguntzen ninduen bitartean, zein zorionsua nintzen gogorarazten zidan, eskualdeko agure boteretsu eta aberatsenarekin ezkontzen nintzelako. Hark zainduko ninduen momentu hartatik aurrera eta harentzako janaria prestatzeak, sema-alaba osasuntsuak eman eta jagoteak eta gainontzeko betebeharrekin, ni harro sentiarazi behar omen ninduten.

Lehentxeagoko leiho beretik kanpora begira nengoen, orain erabat ezkutaturik zeuden izarren seinalerenbat jaso nahian. Eguzkiak akaso, bere argiarekin ez zituen nere buru eta bihotzera heltzea baimentzen?

Ospakizuna laster barru hasiko zen, eta ni han nengoen, oraindik zain, oraindik itxoiten.

Argi zegoen, han goian, zeruan, nahaste bat gertatu izana zela, jende guztiaren etengabeko eskakizunak zirela eta, eta niri ez zidatela arreta handirik jarri. Besterik gabe, oholezko atetik irten nintzen, irribarre zabal batekin, zorionsu izan behar omen nintzen bezala, nahiz eta barnean ito egin behar ninduen negar bat jasan.

Heldutasunari hasiera ematen nion egun horretan bertan, gauza bakar bat atera nuen argi: ospakizun hartan zorioneko bakarra nire ama zen, ezkontzaren truke, edo agian hobe litzateke, nire truke esango banu, hamar ardi eta behi bat jasotzen baitzituen.